

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa sortzen dugunetik, gastuak edukiko ditugu eta hauei aurre egiteko norbanako bakoitzak 3000€ko zenbatekoa jarri beharko du. Bestetik, bakoitzaren gaitasunak garrantzitsuak izango zaizkigu. Proiektua aurrera eraman dezagun, negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatuko ditugu.

Ontziak guk soilik egiteko abileziarik ez dugu, hori dela eta, hauen ekoizpenerako beste enpresa batekin elkartuko gara. Honakoan, kontuan hartuko dugu gure ingurumena eta ontzi jasangarriak egiten dituen enpresa batekin elkartuko garela ziurtatuko dugu.

Hilabete amaierako emaitzaren %10 ordainduko diegu tuperrak ekoiztearen truke.

Horrezgain, gure produktua gainontzeko ontzietatik bereizte aldera, batera jarri nahi diegu. Horretarako, bateriak saltzen dituen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara.

Aurrekoei esker, gure negozio-eredua optimizatuko dugu eta arriskuak sahiestuko ditugu.

Bestetik, baliabideak eskuratzeko bankuari mailegu bat eskatu beharko diogu. Izan ere, negozioa handitzen denerako, praktikotasunagatik eta bezero gehiago eskuratzeko, hobe izango da denda fisikoa irekitzea.



Bestetik, erabilgarritasun eta komenigarritasun aldetik, ontziak etxera eramateko aukera paregabea da. Online erosketa egiteko aukera eskaintzen dugunez, garraio enpresa bat behar-beharrezkoa izango dugu bezeroei heuren etxeetara bidali diezaiegun. Honek, gure negozio-eredua optimizatuko du eta bezeroak galtzearen arriskua saihestu dugu.

Online webguneari dagokionez, aditu bat kontratatuko dugu hura sor diezagun eta bezeroekin kontaktatu ahal izan gaitezen zuzenean. Webgunea sortu ondoren, gu arduratuko gara honen mantenuaz. Aurrez korreo elektronikoz eta telefonoz kontakta bagintezkeen ere, modu hau erabilgarriagoa izango da eta arriskuak ekiditzeaz gain, negozioa optimizatuko dugu.